

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko jarduneko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2010eko apirilaren 14an **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

3.- NESTOR BASTERRETXE A ARETOKO GARBITASUN ZERBITZUA BEHIN BETIKO ESLEITZEA.

Xedea

Nestor Basterretxea aretoko garbitasun zerbitzua behin betiko esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Nestor Basterretxea aretoko garbitasun zerbitzua Union Internacional de Limpiezas, SA enpreseari behin-behinekoz esleitzea onartu zan 2010eko martiaren 10eko Tokiko Gobernu Batzarrean.

Bigarrena: 2010eko martiaren 16an behin-behineko esleipen hori kontratugilearen profilean argitaratu zan.

Argudioak

Bakarra: Behin-behineko esleipenaren iragarkia legeak agintzen dauen denporan egon da iragarrita, eta epe horretan, ez da alegazinerik ez erreklamazinerik jaso. Bestalde, behin-behinekoz proposatutako esleipendunak, emondako epearen barruan bere eginbeharrak bete dauz, eta ondorioz, legezko urrats guztiak bete dira, behin-behineko esleipenak behin betiko bihurtzeko.

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontuan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Nestor Basterretxea aretoko garbitasun zerbitzua UNION INTERNACIONAL DE LIMPIEZAS, SA (uni2) enpreseari behin betikoz esleitzea.

BIGARRENA: Enpresa esleipendunari jakinarazotea hamar (10) laneguneko epean, behin betiko esleipenaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, kontratua sinatu beharko dauela, eta holan egin ezean udalak kontratua bertan behera itxi ahal izango dauela.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkate jaunaren aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2010eko apirilaren 19an.

ONETSIA
ALKATEA